



LIBURUTEGI NAGUSIA
BIBLIOTECA GENERAL

LIBURUTEGI NAGUSIA
MEMORIA

2022

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANTZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Eusko Jaurlaritzako liburutegiak hobetzeko proiektua

Eusko Jaurlaritzako liburutegiak hobetzeko prozesuarekin jarraituz (2021ean onartu eta eragin zen), hurrengo urratsak egin dira.

2022. urtean zehar, Enplegu Liburutegia Liburutegi Nagusian integratzeko prozesua osatu da. Lanpostuen Zerrendaren aldaketa EHAAn argitaratu denez, beste lanpostu bat sartu da Liburutegi Nagusian. Bere funtsak prozesatu egin dira eta, ondorio guztietarako, liburutegi hori desagertu egin da.

Otsailean, IVAPeko arduradunek IVAPeko (Gasteiz) liburutegiko irakurgelaren eta gordailuaren giltzak eman zizkioten Liburutegi Nagusiari, eta bibliografia-funtsak, zerbitzuak eta erabiltzaileak sartzeko prozesuari ekin zioten. Prozesua 2022an amaitu da, eta funtsen berrikuspen osoa egin da. Horietako asko zaharkituak, bikoiztuak edo ez egokiak izateagatik garbitu dira.

Urrian, Hezkuntza Liburutegiko bi lanpostuak Liburutegi Nagusiko bulegoetara lekualdatu ziren fisikoki. Lanpostu horiek aldatzeko eskatu zen, behin betiko integratzeko. 2021ean abian jarritako funtsak berrikusteko prozesuarekin jarraitu da, eta 2023aren amaierarako erabat integratuta amaitzea espero da

01/ Giza baliabideak

Zerbitzuko arduraduna: 1

Arloko arduraduna: 1

Liburutegiko Goi-mailako teknikariak: 5

Liburutegiko Erdi-mailako teknikariak: 2

Liburutegiko administrariak: 2

Mandatari mendekoa: 1

Bi laguntza teknikoren laguntza izan dugu:

- 📖 EUSKO EKI enpreak EIPsra migratzean galdutako argitalpen seriatuen bildumak berreraikitzen amaitu du. 2021ean hasitako prozesu hori irailean amaitu zen.
- 📖 Teknei enpresak IVAPeko (Gasteiz) liburutegiko funtsen tratamendu bibliografikoa egin du. Prozesu hori abenduan amaitu zen

02/ Lokala, instalazioak eta ekipamendua

- 📖 225 m2-ko irakurketa-gela, 12 irakurketa-posturekin, Interneterako sarbidea duten 2 ordenagailurekin, inprimagailu batekin, fotokopiagailu-digitalizataile batekin, mikroformen irakurgailu batekin (papera eta digitala).
- 📖 144 m2-ko lan-gela.
- 📖 Hiru depositu Lakua IIko 2. sotoan, armairu trinkoekin: 761m2, 6.880 metro linealeko apalategiarekin.
- 📖 25 m2-ko gela bat Lakua IIko 1. sotoan, telebista-monitore eta bideo erreproduzigailuarekin

Liburutegien kudeaketa [AbsysNet](#) programaren 2.2 bertsioarekin egiten da. Programa hori Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi guztiek erabiltzen dute, eta sare horretan dago Liburutegi Nagusia.

03/ Zerbitzuak eta jarduerak

Liburutegiaren eginkizun nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen informazio- eta dokumentazio-beharrak asetzea, eta, horretarako, **100.855** monografia eta erreferentzia-lan ditu, baita argitalpen seriatuen **3.550** titulu, datu-baseetarako **38** harpidetza eta **99** aldizkari elektronikoko ere.

03.1. ESKURATZEAK

Monografiak: partida propioarekin eskuratutako funtsez gain, liburutegi propiorik ez duten eta katalogoan epe luzerako maileguan egon arren eskatu zituzten bulegoetan katalogatzen diren sailen aurrekontuen konturako argitalpenen erosketa eta katalogazioa kudeatzen dira. Horretarako, aplikazio erraz bat dago, Desideratak izenekoa.

Beste erakunde eta partikularren truke edo dohaintzengatik katalogoko izenburuak ere gehitu egiten dira.

- Sartutako monografiak guztira: **1.105**
- Eskuratzetik datozenak: **509**
- Kosturik gabe (truke edo dohaintza bidez): : **596**

HemeroteKa: 9 harpidetza berri gehitu dira aldizkari elektronikoenetan.

Prentsa Digitala: Irakurketa-gelan, eguneroko 13 prentsa-bururen lineako sarbidea.

Lege-gordailu elektronikoa eta Liburutegi Nazionalaren hemeroteka digitala. BNEk autonomia-erkidegoei uzten dien sarbide-puntua dago irakurketa-gelan.

03.2. KATALOGAZIOA ETA PROZESU TEKNIKOA

3.642 monografia titulu prozesatu dira

Monografiaren **2.987** laburpen digitalizatu dira

03.3. AZALEZTAPENA

2022an **3.594,91** €-ko aurrekontua onartu zen Diario de Noticias de Navarra egunkariaren azaleztapenerako (Euskal Prentsaren Digitalizazio Partzuergoaren erabakiz gure liburutegiari dagokion azaleztapena) eta 3 aldizkari. Guztira 60 liburuki koadernatu ziren,

03.4. BIKOIZTUEN ESKAINTZAK

Liburutegiak 14 kopia, 7 monografia eta 7 argitalpen seriatu eskaini ditu.

03.5. MAILEGUA

Irakurketa-gelan maileguak ematea EAEko Administrazio Orokorreko langileei: 1.511 mailegu egin dira Liburutegi Nagusiaren funtsetik eta 115 IVAPeko Liburutegiaren funtsetik (Gasteiz).

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen bidezko maileguak: EIPSren Katalogoarekin bat egin ondoren, liburutegien arteko 309 mailegu kudeatu dira

03.6. IRAKURKETA-GELAKO ERREPROGRAFIA-ZERBITZUA

28.975 erreprodukzio egin dira guztira, paperean zein digitalean.

03.7. DOKUMENTAZIO-ZERBITZUA

DialnetPlus Zerbitzuak. 2.809 aldizkari-artikulu eta monografia-kapitulu eskatu ditu 2022an. Erantzuteko batez besteko denbora 2,51 egunekoa da.

Eskatzaileak 192 izan dira, horietatik 96 emakumeak (% 50) eta 96 gizonak (% 50).

Dokumentuak aurkitzeko, Jaurlarizatik kanpoko liburutegietara jo behar izan da, batez ere unibertsitate-

liburutegietara, kasuen % 16,6an (467 eskaera). Interneten % 3,98 aurkitu da (112 eskaera). Gainerako eskaerak (2.330, % 79,38) Eusko Jaurlaritzako liburutegietan ebatzi dira.

Dokumentazio-eskaerak.

2022ean 242 informazio- eta/edo dokumentazio-eskaera ebatzi dira.

03.8. PARTICIPACIÓN EN REDES SOCIALES: TWITER

Liburutegi Nagusiak 573 tweet argitaratu zituen urtean zehar eta 955 jarraitzaile ditu.

03.9. NOBEDADEAK

Hilabete bakoitzaren hasieran, irakurketa-aretoko nobedadeen erakusmahaia eguneratzen da, eta bertan kontsulta daitezke urte honetan eta aurrekoan argitaratu diren azken lanak.

03.10. BULETIN BIBLIOGRAFIKOAK ETA ISDak

Hilero, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen Opacean bibliografia bat sartzen da, azken hilabeteen Liburutegi Nagusiaren katalogoan sartutako monografia guztiak biltzen dituena.

Martxora arte, nobedadeen 6 buletin, aldizkarien laburpenen 3 eta ISD 8 bidali ziren.

Apirilean, Liburutegi Nagusiak informazio-buletin guztiak bateratu zituen **Nobedadeen Buletin** izeneko bakar batean. Buletin hori 11 gai-arlotan antolatu zen, eta monografiak, aldizkarien aurkibideak eta aldizkarien artikuluak biltzen ditu. EAEko Administrazio Orokorreko langile guztiei bidali zitzairen, eta horiek jaso nahi zituzten pertsonen banaketa-zerrenda eguneratu zen. Urtean bitan langile guztiei bidaltzen zaie. Hilero argitaratzen da Liburutegiaren web orrian.

Aurten **9 Nobedadeen buletin** berri bidali dira.

03.11. BESTE JARDUERA ETA PROIEKTU BATZUK

Liburutegiak Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzuarekin lan egiten du, honako lan hauek eginez: bibliotekonomiari buruzko aholkularitza, CIP fitxa, bere argitalpenen katalogazioa eta Dialnet-en aukeraketa bat sartzea.

2018an, orrialde instituzionala aktibatu zen Dialnet Plusen, eta Eusko Jaurlaritzarekin eta haren erakunde autonomoekin elkartutako egileekin lanean hasi zen. 2022an zehar, Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorreko langileak diren edo izan diren Dialnet-eko egileen profilak eguneratzen jarraitu da. 35 egile identifikatu dira, 608 guztira.

Gainera, 28 erreferentzia bibliografiko egin dira, Publizitateen Zerbitzu Nagusiak argitaratutako beste hainbeste monografiarenak.

Apirilean eta abenduan bi liburu azoka txiki antolatu dira irakurketa gelako atean.

03.12. PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

Erabiltzaileen prestakuntza modu ez-presentzialean egiten jarraitzen da, telefonoz eta posta elektronikoz arreta emanaz.

03.13. LANGILEEN PRESTAKUNTZA- JARDUERAK


Absysnet-en argitalpen seriatuen moduluari buruzko ikastaroa, Liburutegi Zerbitzuak antolatua eta Baratzek ematen duena. Liburutegi Nagusiko teknikari guztiak bertaratu dira. (martxoaren 1etik 3ra)

“Liburutegi espezializatuen I. Jardunaldia: ikusezinak? Hautaezinak”. Azaroaren 17a. On-linean.

ALDEEk antolatutako jardunaldia Eusko Legebiltzarrean, Liburutegien Legearen 15. urteurrena ospatzeko. Azaroak 18.

03.14. ERAKUSKETAK

Elkanoren V. mendeurrena zela eta, irailean liburu erakusketa bat antolatu zen irakurketa aretoan, *Juan Sebastian Elkanok gidatutako V. mendeurrena*.



04/ Barne-lankidetzak

Legesareako lantaldea 2 liburutara mugatu da: IVAPeko Liburutegi Orokorra eta Liburutegia (Bilbo). Horrela, Liburutegi Nagusian 120 [buletin juridiko](#) egin eta bidali dira egunero.

Liburutegi Nagusiak, Emakunderen Dokumentazio Zentroarekin eta Gobernantza Saileko berdintasun-teknikariekin batera, hiru [erakusketa](#) bibliografiko antolatu ditu:

- ☞ Liburutegiak berdintasunean (martxo)
- ☞ LGTBIfobiari aurre egiteko irakurketak (ekaina)
- ☞ Emakumeen aurkako Indarkeria Desagertzeko Nazioarteko Eguna (azaro)

Azkenik, Liburutegi Nagusiak Zerga Administrazioako Zuzendaritzarekin lankidetzan dihardu bere [hileko informazio-buletina](#) egiteko.

05/ Kanpo-lankidetzak

Beste hamar erakunderekin elkarlanean jarraitzen dugu *Euskal Prentsaren Digitalizaziorako Partzuergoa* deiturikoan. Partzuergoa 1991n hasi zen martxan, euskal prentsa digitalizatzeko, atzera begirako biltegiatze-kostuak saihesteko eta sarbidea errazteko.

2022an Partzuergoaren jarduerarekin jarraitu du, eguneroko prentsa digitalizatuz.

Liburutegi Nagusiak 2021eko egunkariak eman dizkio Euskarianari, digitalizatuak izan daitezzen eta partzuergo horretako kideei DVDak eman diezazkieten.

Liburutegi Nagusiak BILGUNEA katalogo kolektiboan parte hartzen du. Katalogo hori Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publiko zein pribatuek osatzen dute, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sustatzen du.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2023